



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/03/07 Udaletxean 18.00-19:30



### Gaurkoan bildu gara,

- Iñaki Dubreuil (PSE)
- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Jose Ignacio Mendizabal (Herri plataforma)
- Manolo Iturrioz (EAJ)
- Edurne Huesa (Landarlan)
- Joseba Aranburu (Alkatearen izenean)
- Adur Ezenarro (Bildu)
- Mila Sukia (Ordizia Orain)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Bere ez egotea justifikatu du: Carlos Gonzalez (Irabazi)

### Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. Aurreko aktaren onarpena
2. Irabazi: Edukiontzien ordainketa
3. Edukiontzien bidezko sistemaren jarraipena
4. Sasietako datuen azterketa
5. Ordenantza

### Aurreko aktaren onarpena

Aurreko aktan, Edurnek merkataritzako hondakin bilketa azaltzen den lekuan, hobeto zehaztea eskatu du.

Hau aldatu eta berriro bidaliko zaie akta moldatua. Egun batzuk emango dira aztertzeko eta ondoren aldaketarik ez badago, onartutzat emango da.

### Beste gai batzuk

Ordenantzaren ingurua ekarpen hauek egin dira:

EAJ: Ordenantza lantzeko, mahai gainean Sasietako ordenantza eta Udalsarea 21eko gida hartu. Begiratu gidako artikulak, ondoren ikusi Sasietako Mankomunitateko ordenantzaren zehaztuta dagoen eta aztertu ondo edo gaizki dagoen. Ondorioz, Zerbitziburuen parte hartzea beharrezkoa da hondakin mahai honetan. Bere esperientzia kontutan hartuta, artikulak hauek bere ezagutza eta zein aldaketa egingo lukeen jakitea egokia izango zen.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/03/07 Udaletxean 18.00-19:30



Oria ibaian dauden hondakinak:

EAJ: Oria ibaiko egoera mahai honetako gaia al den galdetu du.

PSE: Oria ibaiaren garbiketa zeinen esku dagoen galdetzen du.

Goiekitik esan dute, Udala eta URA-ren artean hitzarmenak sinatzen direla ibaiaren lanak banatzeko. Ordiziako teknikariak ez dute honen inguruan informaziorik.

Teknikariaren esku geratu da hitzarmen honen inguruko informazioa biltzea.

Denen artean adostu dute gaizki kokatuta dagoen edozein hondakin, mahai honetako konpetentzia dela.

### Irabazi: edukiontzien ordainketa

Irabaziko Carlos lanagatik gaur ere ezin izan du azaldu bilerara. Bere eskaera, bera azaltzen denean edukiontzien ordainketaren inguruko gaia landuko dutela.

Ordizia Orain-ek arazorik ez duela hitz egiteko eta behar bada, Mila Sukia bera etorriko dela esan du, bera baita Ordiziako Udalaren Sasietako ordezkaria.

Bilduk Carlosek egindako eskutitza aurretik bidali daitekeen galdetzeko eskaera egin du, horrela hurrengo bileran ez hasteko zerotik.

Hurrengo bilerara emango da gaia.

### Edukiontzi bidezko sistemaren jarraipena

Edukiontzi puntuen inguruan:

- Arreta bulegoan pertsona bat etortzen denean erroldatzera organikoaren kuboak, gaika sailkatzeko liburuxka eta poltsa organikoak ematen zaizkio.
- Iturtxoko puntuan 7 pertsona identifikatu dira poltsak lurrean uzten eta beraiekin bilerak egiten ari dira.
- Mendizale elkarte ondoan lurrean poltsak uzten dira. Balla bat jarriko da esanez lurrean poltsak ezin direla utzi.
- Orokorrean egoera hobetu egin da baina Malkaskon egoera ez da hain ona.
- Itsasondoko arazoa, muga dauden edukiontzietan zen. Itsasondoko herritarrak uzten zuten. Sasietak esaten du ez dagoela arazorik.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/03/07 Udaletxean 18.00-19:30



- Sasietari proposatu edukiontzietan pegatina bat jartzea intzidentzietarako telefono zenbaki batekin.
- Egutera bideko arazoa:
  - o Edukiontzi txikiak jarri. Hauek irekita egongo dira, bizilagunei informatu egoera okertzen bada edukiontzi txiki hauek kendu egingo direla.
  - o Egoitzara kamioi txikia egunero igotzen da eta edukiontzi txiki hauek hustu ditzake.
  - o Arrasaten erabiltzen duten lanzadera ere kontutan hartu beharko zen.
  - o Edukiontzi txiki hauek txip-a edo giltzarekin jarri daitezkeen ikusi.
  - o Gai hau mugikortasun mahaira bideratu zen baina ez dugu inongo informaziorik jaso. Gai honen inguruko erantzuna eskatu.

### Sasietako datuen azterketa

EAJko ordezkariak Sasietako datuak interpretatu eta azaldu ditu:

Hondakinen sorrera aztertuz:

Atez-ate: 231.119 tonelada /hilabeteko (Lehenengo 8 hilabetetan, abuztua kontutan hartu gabe)

Edukiontziak: 244.833 tonelada /hilabete (4 hilabetetan)

#### **Azken 4 hilabetetan %6ko gorakada bat egon da.**

%6ko gorakada hau edukiontziak daudenen eman da, atez-atekoa zegoenean %6 hau ez zen herrian uzten, beste herrietara ematen zen (Turismo basura).

Gaikako bilketa aztertuz:

Lehenengo 8 hilabetetan gaikako bilketa tasa: % 73,71

Azken 4 hilabetetan: % 76,7

#### **Edukiontziekin %3,9 gehiago atez-atekoarekin baino.**

Bi mediak aztertuz ia **%10eko diferentzia** bat ikusten da.

Landar

2017ko urtarrilean, 2016ko urtarrileko datuarekin alderatuz, **14.000 tonelada gehiago sortu da, %6 gehiago sortu da.**

Sasietari galdetu gorakada hau zergatik eman daitekeen.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/03/07 Udaletxean 18.00-19:30



### **Komertzioetako datua:**

Komertzioetako bilketak beste hainbat lan ere egiten ditu (egunero lurreko poltsak bildu, egoitza eta haurreskolako bilketa eta astean hirutan pixoihalen bilketa). Komertzioetako datua ez da komertzioetakoa bakarrik.

Gainera, orain hondakin gutxi sortzen duten komertzioek atez-ateko bilketa erabili beharren erabili ditzakete edukiontzia.

Kasu batzuetan, gainera, komertzio batzuk bi sistemak erabiltzen dituzte.

Ondorioz, komertzioetako datu errealak ez dugu.

Komertzioetako datua beharrezkoa dela esaten da. Tasak moldatzeko komertzio bakoitzetara, ratioak hobetzeko.

### **Errefusaren karakterizazioa**

Gipuzkoako errefusaren karakterizazio honetan Ordiziako datua ez dago.

Karakterizazio honetan, gaika bereizi behar diren frakzioak errefusan azaldu dira. Nahiz eta beste udalerrietako datuak izan, Ordizian ere antzeko datuak egongo dira.

Iturtxoko errefusa edukiontzi baten karakterizazioa egin genuen eta %30a organikoa zen.

Errefusaren tonelada asko ordaintzen da. Sailkatu daitezkeen frakzioak ezin ditugu errefusara bota, ingurumeneko eragina eta eragin ekonomikoa izugarriak dira.

Ordiziako daturik ez dagoenez, Ordiziako karakterizazioa eskatu beharko litzateke. GFARI eta Sasietari galdetuko zaio.

Iturtxon berriro karakterizazioa egin beharko litzateke ikusteko berriro ere datu berdinak jasotzen ditugun.

Errefusan dagoena ondo bereiziko balitz, %85 batera iritsiko ginateke.

Eskolekin hitzarmen bat egin eta beraiekin 3 hilez behin karakterizazio hau egin daiteke.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/03/07 Udaletxean 18.00-19:30



### Ordenantza

EAJ: Ondorengo prozedimendua azaltzen du: Udalsareako gida hartu eta ikusi artikuluak Sasietako ordenantzan zehaztuta dauden. Ondo badago aurrera eta bestela modifikatu egiten dugu. Zerbitzuburuaren presentzia hondakin mahaiaren beharrezkoa dela esaten du, berak duen ezagutzagatik.

### Hurrengo bilera

Apirileko bilera: apirilaren 4ean arratsaldeko 18:00etan.